



NOR DA ABERTZALE?

FERNANDO ARTOLA «BORDARI»

Ez, ez; «Pe-bi» (Pako Peto) etzen euskeldun jaio. Beno, ez ni ere. A zer nolako ateraldia! Jaiotzerakoan, giza-gizon guztiak bezela, negar egingo zuen. Nik ola uste. Granada aldekoak izan bear zuten gurasoak. Maketoak eta belarri-motzak zirala esanda ezer ez dut aurreratzen; karabiñeroa zen aita. Ama, irabazbiderik gabea (Pentsa, garai artan) «labores» zuen egingoa.

Irurogei pezeta senarraren illabeteroko jorjala. Ainbeste diru zaintzeko, zertarako idazten eta kontabilidatea ikasi! Litro olioak, pezeta. Iruko ogiak, errial bi. Arroltzak xos bana; patatak sos bi kiloak. Oiñezkoak, kaltzetiñak, eta gantzontzilloak, larruzkoak... Galtzak, erreketia (atzean tartia). Onelaxe janzen ziren «kalleja»-kumiak orain dela irurogei ta bost urte.

Emengoak? Galtzak, atorra luze xamarra (gerokoak dire gantzontzillo ta pijama kontuak) ta mantala, belau-kozkoak gordetzeko moduan. Oñutsik asko, bein «alfratak» (Irun'en espartañak) autsi ezkeru. Utz dezagun kontu au.

Biurrik bazan, «Pako-Peto» bat. Ura zen emana ura!

Lau-bost urteko mutil koxkorra «xenbrera-tapa» bezela zabal; sudur-motz, (So, txato!) ukobil sendo, igiera bizi ta urduria; soiñetik apartatutako suangilla-buztana bezela atzera ta aurrera, «betti - ta gotti» ezin geldia ta eziñ egona nabarmen. Aran pottoko-berde garaian, galtzak askatu bearrik etzeukan sabel-eztea ustutzeko. Atzean tartia, badakizu. Goazen aintzina, txikikeriak zearkatuz.

Ondarrabian zegoen aita Pasai-Donibanera aldatu zuten bere eskupeta ta guzi. Pako-Peto ere bai, jakiña! –Pasaira faki nak bizitzera. Gixaxoa. Komeni zaizu jakitea, irakurle, gaurko Hondarribian baiño askozaz geiago mintzatzen zela euskeraz orduko Ondarrabian. Erderaz ez genekigun batere. Pako-Petok, Pasairatu zenean, erdera ia aantzia eramango zuen; orduko Pasaian etzuen bear aundirik izango. O, tenpora!

Urteak iragan, andik amabost bat urtera topatu genun alkar. To, i Pako-Peto aiz! Ta, eu Fernando! Kaixo. Kaixo. Ots aundiko arraunlari trebea zen Pako, sanjuandarren treñeran. Pasai-Donibane Batzokiko pillotari-txapeldun. Luistar zintzo, ta mendigoizale suar bezain bikain eta bioztia. Ta, umorea? Bai, txatorro bai! Danon lagun eta edonori esku-bat emateko prest. Or eta emen elkarganatzen giñanean, irri ta arra, parra ta algara, ta maiz kantatu arako Arrese-Beitia'rena:

*Biotzean gurutza, eskutan bandera,
esan beldurrik gabe, euskaldunak gara.*

Ta, irri ta arra, parra ta algara. Albotik lagunik aundienak; –Txatorro, ik ez, ez dek eskubiderik ori abesteko, i maketoa aiz, maketoa! Brometan ari ituken baiña nik min artzen nian onelakotan.

Ta egun batez, lagun-arteko bazkal ostean, alki gaiñean zutik jarririk, beso biak goratuz; ukobillak itxiak, oi: –Maketoa ni? AQUI hay sangre baska! Nere zaiñetan euzkotar odola ba-zeok! Gora Euzkadi azkatuta!!! Oi, ura poza irea.

Zera; dalako transfusión'en bitartez, ire adiskide batek emaniko euzko-odola sartu zaiñetan. Orain datozela maketo deitzera neri!

Ta, gagarerdí garerdian, dana azpikoz-gora. Tatari! Itzeko gizona intzan da, Euzko Gudaroztean gudari, buruzagi ta agintari.

– Eup, Amayur'eko mutillak! Ekin, eutsi, emon arerioari! Goraki abestuz arteka:

*Azkatasun eguzkia basotik urten da,
bere argia edonun zabaltzen da.*

– Itxartu euzkotarrak, aupa euskaldun guztiak...

*Amaika gazte gudari(k)
«Itxarkundia» kantari
Bizia zun opari
Bere Aberriari
Euzkadi'ko mendietan
Irri-parra ezpaiñetan.*

Eu bat, besteak beste, gazte intzala ta sasoiko, odol beroz euskal-lurra arrosatu uana.

*Euzko gudari odola
Galduko ez da iñola
Zutik dago, ta nola!
Gernikako arbola
Sendoak dauzka adarrak
Gordetzeko Lege-zarrak.*

Atzoko kontuak... Atzo ori orain-oraintzekoa duk, eta ta-malez, beti nai ta eziñaren oiartzunak menperatzen dik gure Aberri laztana. Agian orain gorroto-setatia, barrabas-belarra iduri, leen gurean ez zena, kokatu duk aitarenean, ezin bestean. A, lastima!

Bertakoa intzan eta emengoa; atzerritar bezela ez uan ikusi sekula eure burua euskaldunen artean. Bai zera! Alderantziz, euskaldun eta abertzale odol-emaille ta opalgai aparta bilakatu intzan. Zertarako luza. Sasi-abertzale soberaxko ez ote orain Ama-lurrean, Aita'ren etxean?

Ire etorki-agiriak martiri batenak diranez, eredutzat artzen dizkiat gaur guzian ikasbiderako.

Nor da abertzale? Nor gera abertzale? Zer da abertzale iza-tea? Galderak, galderak, galderak.

Eu, «PakoEstu» izan aurretik, Paco Prieto intzalarik, abertzale, egizko euskaldun-abertzale intzan segurik.

Adiskide-oroitzapenak igitu dizkik nerean ireganako ixurkiak. Ire egoitza ortara, fedearen baitan, irixteko esperantzetan bizi nauk. Besterik ez. Agur.